

Open your sormena!

Euskara eta hiria. Mugak eta aukerak

Xabier Aierdi Urraza

Soziologian doktorea eta irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean

Abstract

Euskara, testuinguruak, klase sozialak eta posizio etnopolitikoak elkar topatzen duteneko bidegurutze konplexuan kokatuta dago eta Nerea Azurmendiren esanetan ez dakigu *bidegurutze* edo *errotonda* batean gauden. Hiriak, modernotasunak, azken mendeko historia eta errealtate materialak euskararen estatusa kaltetu egin dute ezinbestez eta bere des-komunitarizazioa azkartu. Komunitatetik (*gemeinschaft*) elkargorako (*gesellschaft*) trantsizioa kalkuluarena da. Automatismoen ordezkaria kalkulua eta ekonomia kognitiboa dator: momentu bakoitzean errazena egiten den hizkuntza erabiliko da. Euskarak hirira egokitzeko anbibalentzia ugariko prozesuetan aritu beharko du. Sabairik, bai? Sekula lortu ez arren, berreskurapena da helburua. *Working in progress* honetan, urratsak etengabe errebisatu beharra dago baina badirudi bide egokia hartu dela, abiadura ere ez da txarra, eta txango honek merezi du, nahiz eta une luzeetan jiraka errotonda batean sartuta egon behar.

Hitz gakoak: hiria, komunitatea, anbibalentzia, arnagunea, berrikuntza.

Jasotze data: 2019ko apirilaren 14an

Onartze data: 2019ko maiatzaren 6an

Artikulu honen tituluak egungo praktika arruntak adierazten ditu, behintzat beste askorekin turismo hiria den Bilbon, ingelesa euskara baino eta batzuetan gaztelera bera baino maizago agertzen delarik hainbat erakusleihotan. Horrela, Bilboko horma batean ikusi dudana batetik atera dut izenburua.

Zailak dira hiria eta euskararen arteko harremanak, hizkuntza ez normal bat dela ohartarazten digulako lotura honek. Gaztelera eta hiria aztertzea ez da gai interesgarria, seguruenik sekula ez da planteatu, ze normaltasun/anormaltasun bikoteak espazioan, fisikoan eta sozialean, badu bere isla. Hiria zer den, herria zer, ez da gure Euskal Herri honetan begibistakoa den errealitatea. Espazio fisikoak daude, espazio sinboliko eta geografikoak ere, baina askotan ez dira metatzen. Herri itxura duten hiriak daude gure artean baina gutxi, kontrakoa ere arruntago gertatzen da, eta *continuum* bat egin behar bada, gure errealitate sozialak eta sinbolikoak urbanotik dute gehiago landagunetik baino. Izaera hori areagotu egiten da euskaradunoi dagokionean, aspalditik hiri kulturaren guztiz murgilduan bizi da eta.

Horrela, honelako hainbat konturi ekiteko, duela bost bat urte honakoa esan eta idatzi nuen. “Hirietan erronka handia dauka euskarak, baina are garrantzitsuagoa egungo eskualde euskaldun estrategikoak mantentzean, eurak dira-eta euskararen biziraupenaren bermea. Beste batzuen artean, Donostialdea eta Donostia bera ezinbestekoak dira...”¹. Urte pare bat beranduago, beste jardunaldi batean Mikel Zalbideren testu oparo bat aztertzen parte hartu izan ondoren, beste artikulu batean esan nuen²: “Fishman abiapuntu hartuta, euskara indarberritzeko *language planning* huts bat ez dela nahikoa eta *social planning*-aren alde agertzen da Mikel Zalbide. Beraz, jendartea helburu, soziolinguistika eta hizkuntzalaritzaz gain, soziologia ere behar da. Soziologiak, besteak beste, euskarari nola lagundu edo oztopatu diezaioketen aztertzeke, klase eta azpiklase sozialen hizkuntz-praktiken analisia ezinbestekoa du. Euskarak gizarte mugak ditu, mugak horiek bere geroa baldintzatuko dute eta zailtasunak leuntzeke eta arintzeke diagnosi egoki eta zientifikoa, neurri aproposak eta lidergo partekatua –instituzionala batik bat eta gizarte-ordezkarie-na- behar ditu”.

Bi artikulu horietan nioena ekarriko dut hona eta tokian tokiko gaurkotzeak egingo ditut, egoera ez baita nabariki aldatu azken bost urteotan.

1 Xabier Aierdi Urraza, “Hizkuntza praktikak hiri mundo eta mundo hirietan: anibalentziaren presentzia”, *Euskera*. 2014, 59, 2. 503-544. Bilbo.

2 Xabier Aierdi Urraza, “Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Mikel Zalbideren testuaren inguruko hausnarketa marginalak”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 100, 2016 (3), 209-229, | Andoain (Gipuzkoa)

1. MAPA ESKASA ETA IPARRORRATZIK EZ

Euskarak gizarte-mugak ditu, batez ere hiri-mugak, eta diagnosi berberera iritzi eragile eta aztertzaille ugari heldu da, aurrerapen nabarmenik egitea zaila bada ere³. Hizkuntzaren alorrean *zapping* ekimenak egiten ditut eta beti egingarria eta ezinezkoa denaren artean mugitu izan naiz, ikuspegiz soziologoa naizelako, nahiz eta guzti honetan soziologiak ikuspegi ugari dituen. Baina soziologoak badaki ez dagoela gizarte konstanteen gainetik aritzeko gaitasuna duen borondatea besterik⁴. Baldintzapen historiko eta soziologikoak inguruan daude eta argi erakusten dute euskararentzako eredu propio bat sortu behar dela, ez dugulako oinarritzeko balio diezagukeen nazioarteko molderik. Gizarte-asmoak gizarte-testuinguruetan garatzen dira, eta hauetan zenbait helburu egingarri da eta beste hainbat ez⁵. Historia jendarteak egiten du baina ez nahiko lituzkeen aukeraturiko baldintzetan, Marxek zioen legez. Beraz, baldintzapen soziologikoak arakaturaz, euskararen bizipen-berreskurapenari hurrengo konstanteak lagunduko dizkiote:

- 1) Ez du Estatu bat atzetik.
- 2) Hasieratik eskasi nabarmena: ez dugu izan eta ez dugu gizarte ereduak inposatuko dituen burgesia nazionalik.
- 3) Historikoki, inon egin ez den saiakera batean ari gara: ezagutza urri batetik euskarari gizarte oso bat berreskuratu nahi izan diogu euskarari, eta hori seguruenik ezinezkoa da.
- 4) Kultura, euskara eta instituzionalizazio politikoaren inguruko borroka ideologiko basatia eta antzua gertatu zen 80. hamarkadan indar politiko abertzaleen artean⁶, finean instituzionalizazio ezarria eta kontra-instituzionalizazio alternatiboa izan gura zuenaren artean.

3 David Anaut, "Proposamen harrigarrik ezean, proposamen egingarriak eta eragingarriak guxtienez", *Galde Aldizkaria*, 24. Zbkia, 2019, Donostia, 41-43 orrialdeak.

4 Gramscik esaten zuen "adimenaren ezkortasunari borondatearen baikortasuna" kontrajarri behar zitzaiola. Erantzunetarako balio dezakeenak, ez intepretazio garaian.

5 "Borondate politikorik balego" esaten den bakoitzean gertakariak laborategi batean gertatzen direnaren irudia ematen da. Errealitate soziopolitikoan edo kulturean borondate bati beste bat kontrajartzen zaio, eta hori ez da borondate kontua, botere kontua baino. Maila pertsonalean hitzunari zama astuna eta erantzukizun handia egotzen zaizkio, euskararen egoera bere bizkar gainean eramango balu bezala. Aurrerago aipatuko den moduan, euskaltasuna ez da posible izan gure historia eta proposamen etniko-politikoan, eta hutsune nabarmen bat da.

6 Oso interesgarria da Galde aldizkariak, 2019ko udaberriko zenbakian, *Euskaraldia eta gero, zer?* izenburuarekin Iñaki Irazabalbeitiak gidatua atera duen dossierra. Berorretan, Mikel Irizar edo Elena Lakak *governazioaren* kontra eta *gubernantzaren* alde agertzen dira euskarari dagozkion kontuetan. Bien ustez, gauzak egiteko garai berri baten aztarnetan geundeke? Egungo euskararen premiez ikuspegi panoramikoak dossier berebetean Iñaki Martínez de Lunarena.

- 5) Bete ez den (ezin zitekeen?) abiapuntu teoriko itxaropentsua: ezagutzak ezinbestez erabilera dakar.

Hirietara etorrira, ezaugarri hauek ditugu:

- 1) Dilema praktiko bat dute euskal hiriek: euskaldun ehuneko ez nahikoa alde batetik baina bestetik euskaldunen kopururik handiena beraietan bizi da.
- 2) Hizkuntza-nahikotasun praktika-ezina.
- 3) Inon euskara beharrezko ez den gunerik egotekotan, hori hiria da, egunerokotasuna euskararik gabe erre garatu daiteke. Euskaraz garatzea kognitibo eta praktikoki nekezagoa da.
- 4) Aurkari oso indartsuak ditu euskarak hirietan. Aldeko asko ere, baina kapital sozial eta kultural eskaseko asko.

Hortik aurrera, hirietan zer egin? Pazientzia, belaunaldi pare bat, nahikotasuna ziurrtatu, euskara praktikagarri egin eta, orokorrean, presaz eta ezinbestez, desagertzen doazen belaunaldi euskaldunen ordekoak bilatu/bilakatu/sortu, baina hala hiri nola landaguneetan.

Euskararen etorkizuna eta bilakaera seguruenik errealitate urbanoarekin lotuta dago, batez ere hiriburuekin eta hauei dagozkien eskualdeekin, berauetan bizi da eta euskaldun eta biztanleria gehiena. Baina, errealitate urbanoa eta landagunekoa bereiztea ezinezkoa da Euskal Herrian, behintzat mundu ikuskeretan eta kulturaren ikuspegitik lurralde osoa praktikan *continuum* urbanoa delako. Urbe fisikoa ez baina kulturala bai. Teorietan agian guztiz ez; praktiketan, bai.

2. OINARRIZKO DATU BATZUK

1.Taula honetan biztanleria eta euskaldunen bilakaeraren datu absolutuak lurralde eta eskualdeka ikus litezke, ezagutu duten hazkundea eta baita bakoitzaren biderketa. Gogoratu momentu oro bi urtetik gorako biztanleriaz ariko garela, hizkuntza ikerketetan arrunta den moduan.

Honela, 1981tik 2016ra biztanleria %2,0 hasi da, 46.447 biztanle gehiago dago eta oro har immigrazioaren etorrerari esker⁷, baina euskaldunen kopurua bikoiztu egin

7 Atera berriak diren datu definitiboan arabera, 2018 urtarrilaren 1ean, atzerriko immigrazioaren kopurua, modalitate ezberdinetan 220.000 ingurukoa da: bertan jaiotak baina oraindik nazionalizatu gabeak (16.000 neska-mutiko oro har) ; atzerrian jaiotak eta atzerriarrak nazionalitatez (132.000) eta atzerrian jaiotak baino nazionalizatuak (72.000). Urteroko *stocka* 15.000 ingurukoa izango da datozen urteotan.

da eta ia 450.000 euskaldun berri dugu: Araban, 80.000 euskaldunetan dago hazkundera; Bizkaian, 236.000 gehiago, eta Gipuzkoan 131.700 inguru.

Logikoki, hainbat eta zifra handiagoetatik hasi, hazkunde biderketa eskasagoa. Horrela,

- Gipuzkoan %50 hazkundera dugu, Bizkaian %140 eta Araban % 830.
- Bizkaia urte tarte honetan ia 40.000 biztanle galdu arren, 236.000 euskaldun irabazten ditu.
- Bilbo Handiak ere biztanleri asko galtzen du, ia 70.000 pertsona, baina bestalde, ia 200.000 euskaldun irabazi.
- Beste eskualde batzuk ere biztanleria galtzen dute eta bakarrik batek galtzen du hala biztanleria (1.839) nola euskaldunak (1.785), Markina-Ondarroak.
- Euskaldunen hazkundera handia izan da oso kopuru txikietatik hasi ziren eskualdeetan (Arabako Lautada edo Bilbo Handia dira esanguratsuenak) eta askoz txikiagoa hasieran kopuru altu edo dezentetatik hasten ziren zirenekoetan (Donostialdea, Durangaldea, Urola, Goierri, ...).
- Datu bitxiak baina garrantzi eskasekoak ditugu honako eskualdeetan: Enkartzioak, Arabako Ibarak, Errioxa Arabarra edo Arabako Mendialde. Edonola ere, bilakaera erakusten du euskaldunen hazkundera.
- Zaila egiten da zer nolako bidea har tuko duen euskarak, baina hurrengo hamarkadan ezagutzaren batez bestekoa ehuneko erdira heltzea oso gertagarria da; %50, edo baita %60, hartuz. Ezagutzaren hazkundera bermatua dagoela dirudi.

1. Taula.

Biztanleria eta Euskaldunen bilakaera, 1981-2016, Erkidegoan,
Herrialdeetan eta Eskualdeetan, hazkunde absolutua eta biderkatzea.


	Biztanleria				Euskaldunak			
	1981	2016	Hazkundea	Biderkatu	1981	2016	Hazkundea	Biderkatu
Euskal AE	2.076.448	2.122.895	46.447	1,0	447.776	895.942	448.166	2,0
Araba	249.056	314.744	65.688	1,3	9.686	89.823	80.137	9,3
Bizkaia	1.153.031	1.113.955	-39.076	1,0	171.522	407.859	236.337	2,4
Gipuzkoa	674.361	694.196	19.835	1,0	266.568	398.260	131.692	1,5
Bilbo Handia	908.483	838.614	-69.869	0,9	58.920	252.607	193.687	4,3
Donostialdea	308.917	317.836	8.919	1,0	80.584	156.382	75.798	1,9
Arabako Lautada	193.505	252.606	59.101	1,3	6.555	69.979	63.424	10,7
Durungaldea	87.844	95.870	8.026	1,1	32.184	50.089	17.905	1,6
Bidasoa Beherea	62.641	75.092	12.451	1,2	15.985	34.372	18.387	2,2
Urola-Kostaldea	59.453	73.358	13.905	1,2	43.849	57.207	13.358	1,3
Goierri	68.249	65.645	-2.604	1,0	31.931	41.629	9.698	1,3
Debagoiena	65.041	61.179	-3.862	0,9	34.808	40.534	5.726	1,2
Plentzia-Mungia	32.409	55.111	22.702	1,7	15.195	29.346	14.151	1,9
Deba Beherea	64.717	53.801	-10.916	0,8	30.785	33.231	2.446	1,1
Tolosaldea	45.343	47.285	1.942	1,0	28.626	34.905	6.279	1,2
Gernika-Bermeo	44.883	44.570	-313	1,0	32.160	32.802	642	1,0
Kantauri Arabarra	32.936	33.623	687	1,0	1.441	11.428	9.987	7,9
Enkartzioak	30.429	31.249	820	1,0	309	8.977	8.668	29,1
Markina-Ondarroa	27.284	25.445	-1.839	0,9	22.341	20.556	-1.785	0,9
Arratia-Nerbioi	21.699	23.096	1.397	1,1	10.413	13.482	3.069	1,3
Errioxa Arabarra	9.288	11.173	1.885	1,2	80	2.525	2.445	31,6
Gorbeia Inguruak	5.549	8.588	3.039	1,5	1.551	4.006	2.455	2,6
Arabako Ibarrak	4.192	5.826	1.634	1,4	39	1.151	1.112	29,5
Arabako Mendialdea	3.586	2.928	-658	0,8	20	734	714	36,7

Iturria: Eustat eta HPS. Egileak egina.

Hiriburuen eskualdeek gero eta euskaldun gehiago barne hartzen dute bilakaera honetan: euskaldunen %32,6 bizi zen hiru eskualde hauetan 1981 urtean eta %53,5 2016an. Hiriburu eskualde erdaldunenak zeharo biderkatu egin dira eta Donostialdea mantendu egin da, nahiz eta aipatu bezala hirurak zenbaki absolutuetan gora egin duten, (1. Grafikoa).

1. Grafikoa.

Hiriburuen eskualdeetan bizi den euskaldunen bilakaera, datu absolutuak, 1981-2016




Iturria: Eustat eta HPS. Egileak egina.

Hurrengo grafikoan (2.) eskualdeak bizi izan duten hazkuntza, biztanleena eta euskaldunena ikus genezake, eta aipagarriak dira hiriburuetakoen aldaketak:

- Bilbok mutur bat erakusten du. Esan moduan, biztanleria galdu eta euskaldunak irabazi.
- Donostialdeak bietan irabazi, baina batez ere euskaldunak.
- Arabako Lautadak bietan asko, 60.000 inguru, hala gora (euskaldunetan) nola behera (biztanleetan).
- Beste zenbait eskualde aipagarri ditugu: Durangaldea, Bidasoa, Urola Kostaldea, Plentzia Mungia, Goierri eta Debagoiena. Azken bietan, euskaldunak irabazi arren biztanleria galdu egin da.
- Besteek hazkunde txikiagoak ezagutzen dituzte, batzuk biztanleria galduta.

2. Grafikoa.

Biztanleria eta euskaldunen bilakaera eskualdeka kopuru absolutuetan, 1981-2016.




Iturria: Eustat eta HPS. Egileak egina.

Euskararen geografi kokapena hobeto ikusteko beste datu batzuk dakarzkigu (3. Grafikoa):

- 2106. urtean, euskaldunen batz bestekoa erkidegoan %42,2 da. Ehuneko horren azpitik daude Bizkaia (%36,6) eta Araba (%28,5) eta Gipuzkoa gainetik (%57,4).
- Arabako Ibarren eskualdeak du euskararen ezagutzarik txikiena (%19,8) eta Markina-Ondarrukoak (%80,8) nagusia. Batz bestekoaren gainetik ia Gipuzkoako guztiak eta Bizkaiko gehienak daude eta kontrako gertatzen da Arabakoetan. Arabako Lautada eta Bilbo Handia azken talde honetan daude,

3. Grafikoa.

EAE, Lurraldeak eta eskualdeetako biztanleriaren euskara ezagutza, 2016, % Euskara ezagutza porzentaiaren arabera goitik behera antolatuta.



Iturria: Eustat eta HPS. Egileak egina.

Baina euskararen ezagutzaren ikuspegitik, euskaldun kopururik handiena Bilbo Handian dago (252.600), Donostialdean (156.400) eta Arabako Lautadan (70.000). Hiru eskualde horietan biztanleria osoaren bi heren bizi da (% 66,4) eta euskaldunen erdia baino gehiago (% 53,5).


Euskararen intentsitate indize bat egin dugu, eskualde bakoitzean dagoen euskaldun ehunekoak euskaldunek eskualdeka duten distribuzioaren ehunekoarekin biderkatuta, eta 4. Grafikoko tipologia sortu dugu arnasmuneak erakusteko, hala lurraldean oinarrituak nola sektore potentzialen kokagunean ikusi ahal izateko:

- Arnasmune territorial bat, hainbat eskualdeetako biztanleri euskaldunaz osatua (Urola kostaldetik hasita Arratia-Nerbioiraino letorkeena; euskaldun guztietatik % 50,7 jasoko lukeenak),
- beste bat, tarteko egoeran kokatua (Donostialdea, Plentzia Mungia, Kantauri Arabarra; guztiaren % 22,3), eta
- azkenik, garrantzizkoa izanda, lurralde arnasmune ahula osatuko lukeena (Bilbo Handia, Arabako Lautada eta Bidasoa Beherea, % 25,7 barnehartzen du).

- Arnasgune ezberdin hauek aukera ezberdinak ematen dituzte. Agian,
 - lehenean edozer egitea posible da;
 - bigarrean, nahiko egin liteke; eta,
 - hirugarrean, lurralde estrategiak baino, ekimen sektorialak agian egingarriagoak dira.
 - Laugarren multzoa, gaur egun euskararen intentsitatearen ikuspegitik eta arnasmune izatekotik oso urrun dago eta kopuru eta portzentajeetan guttiz esangurarik gabekoa da. Datu osatuagoak nahi izanez gero, hasieran aipatu bi artikuluetara jo daiteke.

4. Grafikoa.

Euskararen intentsitate indizean oinarritutako arnasmune tipologiak, 2016



Iturria: Eustat eta HPS. Egileak egina.

Biztanleriaz aparte ere, euskaldun kopuruak erakusten du lau euskaldunetarik bat Bilbo Handian bizi dela eta Bilbon bertan, euskaldun guztietatik %10. Donostialdean ia bost euskaldunetarik bat bizi da (%17,6) eta euskaldunen kopuru absolutuei dagokierik, Donostia Bilboren parean dago. Araban, azkenik, euskaldunen %7,2 bizi da eta eurentatik ia gehienak logikoaenez Gasteizen⁸ (% 6,6). Hiriburuetako eskualdeetan euskaldunen %50,7 bizi da eta hiriburuetan %25,7.

2. Taula.

Udalerri eta Hiriburuen biztanleri tamaina
eta euskararen ezagutza portzentajea, %, 2016

Biztanleak	Udalerri Kop.	Biztanleria	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
0-2.499	153	100	61,8	13,4	24,8
2.500-4.999	28	100	51,0	17,4	31,7
5.000-7.499	20	100	57,4	16,0	26,6
7.500-9.999	9	100	55,1	15,5	29,4
10.000-19.999	23	100	56,0	16,2	27,8
20.000-50.000	12	100	39,0	19,5	41,6
50.000-100.000	3	100	31,8	21,3	46,9
Donostia [176.367]	1	100	46,0	19,7	34,3
Gasteiz [235.839]	1	100	27,3	19,7	53,1
Bilbo [335.732]	1	100	29,0	20,0	51,1
Guztira	251	100	42,2	18,5	39,3

Iturria: Eustat eta HPS. Egileak egina.


Udalerrietara jaitsiz datu argi bat dakusagu: udalerriak biztanlerian gora egin ahala, euskaldunen portzentajeak behera egiten duela eta alderantziz. Tamainuz, eta lurraldeen arteko ezberdintasunak kontutan hartu barik –Arabian ezagutza askoz txikiagoa delako-, 20.000 biztanle gutxiagoko udalerrietan euskaldunen portzentajea %56 da. Biztanle ikuspegitik, hortik gainerako udalerrietan txikituz doa euskaldunen portzentajea, eta oraindik eskasagoa da Bilbo eta Gasteizen. Donostia tartean dago, biztanleetatik %46 euskara daki eta.

8 Araba ia makrozefaloa edo unizefaloa da.

Azkenik, eskaintzen dugun azken grafikoaren bidez, euskarari loturiko taldeak nola banatzen diren udalerrien tamainaren arabera ikusita, datu oso interesgarri batzuk eskaini ahal ditugu. EAEko 2 urtetik gorako biztanleriaren %15,8 hartzen du Bilbok, euskaldun guztietatik %10,9 eta erdaldunetatik %20,5%. Antzeko egoera tipologikoa Gasteizek erakusten duena. Donostiak, irudi orekatuagoa du. 20.000 biztanletik behera dituzten udalerrietan hasten da egoera aldatzen, euskaldunen ehuneko altuagoa barne hartzen dute biztanleriarena baino.

5. Grafikoa.

Udalerrri eta Hiriburuen tamainaren araberako biztanleria eta euskara ezagupenaren banaketa, %, 2016.



Iturria: Eustat eta HPS. Egileak egina.

Datu guzti hauekin gure hizkuntzaren errealitatearen erretratu simple bat dugu, baina gure nahietarako nahikoa da, funtsean Fishmanen hitzak hartuta Mikel Zalbidek esaten duen moduan gure lana ezin baita *language planning* bat egitera mugatu, gizarte osoa inplikaturik dago eta. Hots, *social planning* bati ekin behar diogu, etorkizuneko Euskal Herri posibleaz ari gara eta.

Datuak Euskal Autonomi Erkidegokoak dira, baina analogia egokiak eginda Nafarroa edo Iparraldeko egoeretarako datu aplikagarriak ditugu. Nafarroako iparraldeko egoera Gipuzkoako inguruko eskualdeetako da. Gainontzeko lurraldekoa Arabako Lautadaren antza eduki lezake eta zer esan Erriberaz.

Iparraldeari dagokionean, lurralde euskaldunagoak –Zuberoa eta Nafarroa Behe-rea- demografikoki ez dira oso esanguratsuak eta Lapurdiko egoerak Nafarroa Garaian parekorik aurki dezake.

Esan eta esango dugun moduan, dena da hizkuntza politika, hala hizkuntza ahula sustatzera datorrena nola baita ustezko neutraltasuna aplikatzen duten politika kultural liberalena. Horrela, hurrengo orrialdeetan zailtasunak izango dira nagusi, bidaide posiblerik aurkitzen saiatuko gara, baina momentuz ezingo dugu errezeta magikorik eskaini. Horretarako ni baino adituagoak badaude eta.

3. HIRIA, KULTURA ETA INDIBIDUOA: ANBIBALENTZIAN BIZI ETA ASMATZEN SAIATU

3.1. Anbibalentzia nagusi: agnostiko sinesleak sortzen

Gai honen inguruan, ez da erraza ezer berririk esatea. Datuok ikusita, badirudi teorikoki behintzat hirian eta epe luzean jokatzeko delako euskararen biziraupena, baina baita ustez etorkizun bermatua leukakeen udalerritik txiki eta eskualdeetan ere, eta oro har lurralde guztian. Egon izan da, eta badago gaur egun ere, eskualde euskaldunetan euskara ezagutzen dutenen portzentaje pixka bat txikitu denean ikaratu egin den aditu jendea. Eskualde batzuen gentrifikazio prozesua eta ezinbesteko mugikortasunetik aparte, euskararen berreskurapen integralean efektu eskaseko faktoreak direla uste dugu.

Hala ere, egia da hirietan ezagutza eta mintza-jardunaren presentzia ugalduta ezean, errenkan ibiliko delako euskara eta hausnarketa eskatzen duela egoera honek. Agian, erreze-ta eta teoria itxi bat baino, *work in progress*-a da euskararen etorkizunaren bermearen nolakotasuna. Euskararen etorkizuna eta hiriarekiko harremana anbibalentziaz josia dago, eta agian hitz honek beste edozeinek baino hobeto azaltzen du datorkigun ibilbidea. Anbibalentzia teoriko eta praktikoa ibiliko beharko duten funanbulistak gara euskaldun, euskaradun eta euskararen etorkizunarekin kezkatu guztiok, eta noski hiztunak.

Printzipioz, alderantzizko dinamika baino, errazagoa dirudi hiriek eta batez ere hiriburuek udalerritik txikiagoetan euren dinamika irradiatzea. Ez hiriburua direlako, Euskal Herrikoa tamainuz ere *Hiria-Landagunea continuum* bat delako, baizik eta hiria sormenaren tokia delako. Gure artista gehienak landagunean bizi litezkeen sortzaile urbanoak dira.

Azken bi mendeak modernotasunarenak izan dira, eta egun modernotasun berantiarrean gaude, modernizazioaren modernizazioa, eta beronekin hala prozesuen abiaduraren azkartzea eta gizarte-egitura eta instituzioen suntsiketa erlatiboa maila estrukturalen nola askatasuna eta betebeharrak kolektiboetatik askatzea maila pertsonalean dakarrenak. Koertzio sozialaren ordez aukeratzea eskura dagoenean, objektuak (desiratuenak ere) barne ahuldu egiten dira eta aukera izatera pasatzen dira, ez dute behartzen. Euskarari gertatzen zaion egoera hau ez da ez gaztelera ez antzeko hizkuntzetan gertatzen, euren errealitate objektiboa hain denez naturala eta zabaldua, behartu egiten dutenaren per-

tzepzio subjektiboa sentitu ere ez da egiten. Hain da erreza hizkuntza indartsuetan ari-
tzea! Zenbat gizagaixok munduan uste duen ingelesa bere logika komunikatiboagatik
berez hedatzen den hizkuntza dela, horregatik ikasten eta aukeratu ere eurek egin dutela!

Euskararentzako anbivalentzia dakar berriro egoera honek, ezinbestean bere erre-
kuperazio dinamikarako derigorra eta askatasuna dosi egokietan nahastea eskatzen due-
lako. Hala da eta hala izango da gizakiak garen artean. Honetan euskarari proposamen
etiko edo erlijioei gertatzen zaiena datorkio, nola izan “*agnostiko sineslea*” aniztasun garai
batean. Gainontzeko aukerak ahaleginen aldetik askoz errazago eta merkeagoak direnean,
nola euskararen beharra *borondatez auto*-esperimentatu. Nola hurbileko ekoizleei erosi
supermerkatuak eskura eta merkeago daudenean. Eko-nomi eta Eko-logi dilema.

3.2. Hiri kultura nagusi

Modernotasunaren ezaugarri bat hiri-kulturaren garaipena izan da; egun, biziagotu baino
ez da egiten joera hau. Euskadi, euskaldunak eta, oro har, abertzaleak, berberak izan ez
arren logikoki, estrabikoak izan behar: 1) kultur- eta politika- eskariak begi batetik iraga-
neko tradizioan sustraitu eta legitimatu behar badituzte, 2) bestetik begi bizkorrenetik,
helburua etorkizunean kokatzen dute.

Euskaldunek, gehiago euskaradunek, janzkera tradizioaletan joera postmate-
rialistak garatzen dituen taldea osatzen dute. Begiratu baino ez zaie egin behar balioen
inguruko ikerketei⁹.

Modernoegia da Euskal Herria, nahiz eta bere sektore bat eta kanpoko ugari nahas-
menean mugitu. Barruko askok nazionalismoa eta euskal kultura gain metatuz nahasketa
izugarria sortzen dute eta Molièreren burges jentilgizonak bezala prosa praktikatzen
dutela jakin ez, askotan ez dira kontziente euren praktika materialez. Kanpoko askok,
aspalditik datorren hutsalkeri teoriko ezarrrian oinarrituta, unibertsalistak antiabertzaleak
eta partikularistak atzerakoiak direla uste dutenez, errealtate materialei begiratu beharre-
koan, eurek euskaltasunaz eraiki duten irudiari baino ez diote erreparatzen. Batzuk zein
besteak ez dute edukien modernotasuna ikusten.

Izaera moderno honek Euskal Herriko lur eremu ia guztia kutsatzen du eta zaila da
hiri-kulturaren *continuumean* egon litekeen marra banatzailerik margozte. Euskal kultura
oso da moderno. Euskal lurraldea ere. Modernoena bezain moderno da euskal kultura.
Azken urteotan hiri kultura honek euskal kultura inbaditu eta bere egin du, beraz hiri
mundua eta kultura urbanoa aspalditik daude euskarara helduak. Egungo euskalduna

9 Javier Elzo eta Maria Silvestre (Zuz.), *Un individualismo placentero y protegido. Cuarta encuesta europea de valores en su aplicación a España*, Deustuko Unibertsitatea, 2010.

akzioz edo omisioz modernoa da eta alde honetatik, ikusmoldeen eta mundu ikuskeren perspektibatik, euskara gaurkotua dago eta bere produktu guztiak ere, trikitixa barne. Umorez, esan liteke *mestizaia* euskal kulturaren atal bat dela.

Geografikoki, nekazalgunea hiritartzea ere arrisku gisa uler liteke, baina trantsizio hori egina dago eta sakondu egingo da, etorkizunerako konstante bat da, datu aldaezin bat, eta intentsifikatu beharreko joera, belaunaldi berriekiko lotura galdu gura ezpada. Interesgarria da edonola ere izaera bikoitza luzaro mantentzeko gaitasuna izatea. Alde batetik, tradizioan murgiltzen gabiltzala uste izanik bestetik modernotasunean aritzea, intentsitate eskaseko nolabaiteko autokoertzioa bultzatuko dugu eta bikoiztasun honek mesedeak ekarriko dizkigu. Gerta liteke ere kontrakoa, tradizioa oso modu erritualean mantendu, euskararekiko harreman exotikoa praktikatu eta erderei zumardi zabalak eskaini. Ondo biziko ginela eta, dena gezurra! Ez dugu ezer ziurtaturik!

3.3. Ahulezi geografikoak, estrategi ugariak

Euskara ahul agertzen da Bilbon eta Gasteizen, baina Donostiako kasua bestelakoa da eta hizkuntzarekiko harremanaren araberako taldekatzeak egiten baditugu, Donostia da hiruretatik bakarra non euskaldunen ehunekoa ia euskaldunak edo bakarrik erdaldunak direnena baino handiagoa den. Beraz, Gipuzkoa osorako estrategia parametro lasaia-goetatik aztertu beharra dago, eta gidaritza moduak eta ekimen bideak bertan arakatu. Gipuzkoa euskararen zentroan dago eta linguistikoki *Gipuzkoa-hiriak* irradiatu behar du bere indarra gainontzeko lurraldeetara. Paradoxikoki, urbanoena Bizkaia-Bilbo da. Gure aitak asko maite zuen jertse bat zuen eta harexetatik ezustean paradoxa (edo sindromea) asmatu zuen. Hainbeste aldiz garbituta txikituta geratu eta gerria babesten bazuten tripa ez, eta alderantziz. Baina, halaxe da euskararena.

Datu erabakigarria euskara ezagutzen dutenen kopurua bada, fokismoa praktikatu ote daiteke eta posible ote da hiriak inguratzea eta setiatzea? Posible ote da *gebarismoa* eta *maois-moa* elkartu, biak foku txikietatik edo tokiko fokuetatik hasita hiria irabazi nahi zuten eta?

Zoritxarrez ez, badirudi ez dagoela indar nahikorik ezta masa kritikorik ere. Eta momentuz, ezta beharrik ere. Honen guztiaren ondorioz, hiriburuek neurri handi batean prozesu endogenoekin indartu beharko dute, euskararen hedadura barruko dekantazioak ekarriko du, hezkuntza sistemak eremu berriak irabaziko ditu eta arreta-guneak eta indarrak hiri eta landa-guneen artean banatu beharko dira. Hiriak irabazteko ezin dira udalerrri eta eskualde estrategikoak babesik gabe utzi. Bakoitzari berea, eta estrategia lokalizatu eta girotuak sortu behar dira. Jon Sarasuak dioenez gurean dilemak problemak dira, problema bikoiztuak¹⁰.

10 Jon Sarasua, *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*, Pamiela, Iruña, 2013.

Ez dago eredu bakarrik, eta berriro umorez eta ironiarik gabe, *target* eta estrategi ezberdinak identifikatuz marketing *smart*-aren logikan sartu behar dugu eta Euskara 5.0. asmatu. Ez dugu *customizazio* prozesuak abian jartzeko indarrik, baina hori da logika: arnagune territorialez gain, hirirako sektorialak asmatu. Horrelakorik iradoki du David Anautek, eta ados nago. Hirian bertan sortu behar dira fokuak.

Euskarak babes bikoitza izaten jarraitu beharko du: instituzionala, eskualde estratategikoetan –berez, arnagune direnekoetan- gizarte prozesuek euskara eta bere erabilera berezkotasunez elikatzen jarrai dezaten eta, soziala, hiri eta kultura urbanoaren indar kolonizatzaile indartsuak eskualdearen barne prozesuak galgatu edo ahuldu ez ditzan. Alde instituzionaletik, udalerrri eta eskualde hauen dinamika suspertu eta indartzea dakar, euskararen intentsitate maila mantentzeko gaurdaino agian izan ez ditugun programa eta plangintzak asmatuz eta sendotuz. Sozialki, euskara harrotuz eta euskaldun izatearen balioa zabalduz. Euskaltasuna eta euskararen *branding* estrategia.

Era berean, euskalduntasunari eta euskaldun izateari legozkiokkeen betebeharrei izaera tragikoa kendu behar zaie eta hiztun arrunta izatearen garrantzi nahikoa aitortu. Arazoa, arazoetako bat, ezagutza eta erabileraren arteko jauzian badago, hitz egitearen balioaren bideak bila ditzagun, bere eguneroko normaltasunean, beste inolako sakralizaziorik gabe. Suárez parafraseatuz, udalerrri euskaldunetan arrunta dena udalerrri handi eta hirietan arrunta izan dadila. Euskaraz hitz egitea da helburu, ez sakontasunez hitz egitea. Hori ere bai. Horrelako mekanismo automatikoa bakarrik da posible Gipuzkoako zenbait eskualdeetan eta beraiekin muga diren Bizkaiko pare batean: Durangaldean eta Lea-Artibain. Eta baita Nafarroako mugakoetan.

3.4. Zentralitatea eta liberalismo kulturalaren kondeszendentzia

Zentralitatea halabeharrez egungo Autonomia Erkidegoan jarri behar da, berau delako euskararen bilakaera babestua daraman gune politiko eta administratibo bakarra. Besterik da, galdetzea ia egin behar zen guztia egin izan den eta behar zuen erritmoarekin. Ez dugu sekula jakingo. Baina eginikoak ondo erakusten du zer-nolako aldea dagoen babesa edo/ eta liberalismo kulturalan oinarritzean. Iparraldean eta Nafarroan euskara Erkidegoko egoerarik kaskarrenaren mailan balego pozteko arrazoiak leudeke.

Hiru lurraldeen -Nafarroa, EAE eta Iparraldea- arteko euskara ezagutzaren aldeak hizkuntz politika ezberdinen ondorio dira; euskararen kontra aritzea edo euskara kontutan ez hartzea ere hizkuntz politika nabaria da¹¹. Hasierako datuetan ikusi den moduan,

11 2015-2019 Legeagintaldiko tontoaren sailkapena egingo bagenu Marzillako alkateak, Mario Fabok, Uxue Barkosen aurrean esan zuenarekin, lortuko luke: “Bueno, yo no sé euskera, así que

hazkunderik handienak behintzat proportzio eta portzentajeetan euskara ia desagertua zegoeneko eskualdeetan gertatu dira.

Joan den mendeko 80. hamarkadaren hasieran antzeko posizioetan zeuden udalerrri asko eta adibidez konparagarriak ziren Tutera eta Barakaldo, Gasteiz eta Iruñea. Ikasteko motibazioak eta euskararekiko atxikimenduak ekarriko zituen gero beste hainbat ñabardura, baina antzeko abiapuntu batetik abiatuta helmuga hain ezberdinerira iritsi izanak garatu diren hizkuntza politikak baloratzeko eta elusioak zer suposatzen duen jakiteko argibideak ematen dizkigu. Instituziorik eta instituzionalizaziorik gabe ez dago etorkizunik. Joera anti-instituzionala indartsua izan da euskal kulturaren eta askotan nahaste handiarekin instituzionalizazio politikoa, hizkuntz eta kultur politika eta erakundetzearen beharra ere inpugnatu dira.

Barruko inpugnazioari presente dagoen beste bat ere nabaria da, hizkuntza politikaren nolakotasuna zalantzan jarrita, hizkuntza politika beraren legitimitatea ukatu gura dutenena. Badago egon, politika kultural liberalen neutraltasunaz guztiz sinetsita dagoen sektore bat, euskararen inpugnazioan aritzen dena eta klase ikasiaren azpi-sektore batek osatua, baina aurrerago hitz egingo dut honetaz.

3.5. Hiria ala euskara, ala euskara hirian?

Kezkarako hainbat gai daude. Adibidez, eta adinarekin lotuta, desagertzen doazen belaunaldiena, horien ordezkoea, atxikimendu automatikoa eta jarrera erreflexiboarena eta abar. Denak lotuta daude eta denak argitzen digute hizkuntza praktketan zer den zaila, zer erreza, eta zein testuingurutan. Hirietan bi arazo daude, kopurua eta hiztunarena. Kopuru aldetik ez dago arazorik, asko dira hirietan bizi diren euskaldunak, bananduta egon arren.

Bestalde, zergatik euskara dakien batek hitz egiten ez duenaren kasua dugu. Seguruenik, ezin duelako, ez duelako eskura giro aproposik. Akonplejatuen kopurua eskasa da. Arrazoi soziologikoek eta sare sozialek ederto azaltzen dute hiztun isilaren egoera. Hitz egin beharraren diskurtsoa gurean guztiz presente dagoenean, hiztun-gaiek egiten ez badute ezinezkoa zaielako da. Hizkuntza kontaktua dagoenean, hiztunak arrazoi ugarirengatik automatikoki praktika linguistiko zehatz batzuk beste batzuen kaltetan garatzen ditu. Isiltasunaren espiral batean sartuak gaude eta horri buelta emateko tresnak aurkitu behar dira, bestela euskaraduna (berria edo zahar alfabetatu gabea) ez da hiztun bilakatuko.

good morning (buenos días en inglés), buenos días a todos". Ezjakin harroputzaren jarrera, zoritarrez ez bakarrik indibiduala.

Prozesu konplexuak ezin dira argitu azalpen errazekin. Praktika kulturalak praktika politikoak dira. Bourdieuk zioen moduan¹², “bikaintasun linguistikoa bereizten duten ezaugarriak bi hitzetan labur daitezke, distintzioa eta zuzentasuna”. Gune atomizatuak, pertsona bakartiek, erabilera intermitenteek ezin dute komunitate lagungarriak sortu. Fokoak bai, baina komunitatea ez! Komunitateak kidetasunen baten oinarritzen dira eta lokarri pertsonal afektiboekin laguntzarekin sendotzen dira, baina euskararentzako behartuta gaude komunitate inpersonalak sortzen. Estatu immigrazio prozesu historikoak aztertzen direnean “auzoko euskalduna” oso ohikoa zen Barakaldo eta inguruko udalerrietan 90. hamarkadaren hasieran¹³. Egun, hirietan, ez edukitzearren, ez dugu ezta “auzo euskaldunik”. Ghetizazioa, ezarrera sakabanatua, zer nolako foko edo komunitateak, zer egokiena? Auskalo! Geografia urbanorik ez du euskarak. Artxipielagorik? Koral masak partikula txikien metaketaz sortzen dira baina beti politika bezain ahul eta zaugarriak izaten jarraitzen dute.

Zer beharko luke izan? Hiri guztirako eredu ala hobe enklabeetan (foko, gune, ...) oinarritu indar-/arnas-gunea? Lanak hain handi eta ugariak izanda, ez dago atsedenerako astirik baina derrigortasunaren ondoan, batzuetan arnas-estuka ez ibiltzeko arnas-egunak ere beharrezkoak izango zaizkigu¹⁴. Berreskuratzearen mitologia agortua dagoenean, zer nolako magiaz babestu euskara? Euskararen bizi diren edo euskarara hurbildu diren hiritarrei bekatuan bizitzea permititu beharko zaie, munduaren zama (edo euskararen salbazioa) eta erantzukizuna eramatea ez baita erraza. Beste paradoxa, dilema, anbibalentzia edo dena delako bat.

3.6. Hiriaren airea beti izoztua?

Badirudi, gaurdaino behintzat, hiriaren dinamika euskararen aurka doala. ‘Hiriaren aireak libre egiten gaitu’ esan ohi da modernotasun eta ilustrazio garaian eta hala da, baina hiria euskaratik askatzeko baliatu daiteke ere. Hiztun osoa ez denarentzako, hiria hainbat koertzioetik urruntzeko ezkutaleku aproposena da, anonimotasuna bermatzen duelako. Hiria kontrol ezeko, komunitate ahuleko eta aniztasunaren tokia da, eta modu naturalean gartzatzen ez denak etsaia dauka hirian edo ekosistema urbanoan. Hori gertatzen zaio euskarari.

12 Pierre Bourdieu, *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*, Akal, Madril, 1985

13 Egun datorren atzerriko etorkin batek euskararen errealitatea presentego du Espainiatik duela hirurogei urte etorri zirenek baino.

14 Euskaldun izatea oso neke izaten da. Ruper Ordorikak kantatzen duen moduan “Inork ez zidan esan euskaldun izatea zein nekeza den, Hobe nuela hautatzea Munduko hiritar izatea”, *Zaindu duzun maitte hori* kantari.

Legeak lagundu diezaioke noski, baina ez beste ezerk. Bai, borondate kolektiboak, baina zeren inguruan sortu eta nondik elikatu?

Hiriaren dinamikak erantzukizuna leundu eta desagerrarazi egiten du, hiztuna askeago sentitzen da eta lokarri afektiboa urtu egiten da. Edo urtzeko aukera gehiago ematen du¹⁵. Gune komunitarioetan halaberrez mantendu behar diren pautak erraz alboratzen dira talde kontrolak guztiz presente ez daudenean edo modu baretuan aplikatzen direnean. Dilema berri bat: zelan aplikatu arau komunitarioak komunitaterik ez dagoen (eta askotan nahi ez den) tokian. Hortan datza magikotzearen behar eta garrantzia, osakin afektiboa indartzeko eta erabileraren jautzia ahalbidetzeko. Nola lortu? Auskalo! Patxadaz eta konfiantzaz, susmatzen dut! Baina ez koertzio agerikoarekin.

Anbibalentzia batean mugitu beharraren ondorioz, euskarak hirietan egoera sakanatua ezagutzen du eta, era berean, erreferentzia nagusia balitz bezala funtzionatu behar du, gutxiengo oso aktiboak eta enklabeak sortuz. Nolakotasunaren planoak norbaitek baditu, lehenbailehen planoak ezagutzera eman ditzala, biziki eskertuko zaio eta!

3.7. Aliantza ahuldua?

Talde mailan, hiria ezinbestez eremu minatua da euskararentzako eta erraz elika dezake *neurotikoen aliantza*. Charles Taylor kanadiar aditu eta teoriko komunitaristak dio Québec bezalako guneetan, eta gureak badu horren antza handia, talde baten ametsak aurkakoaren amesgaiztoak direla, eta alderantziz. Beraz, edonon errezeloa agertzen da.

Mekanismo honek hirietan makina bat min eta arazotxo sortzen ditu egunerokotasunean. *Praktika egokidun* bilduma bat beharko genuke¹⁶. Honelako egoerek, eta oro har *neurotikoen aliantzak*, ba ote dute erregulazio posiblerik? Egoera delikatuak izaten dira eta normalean maila pertsonalean eragiten dute eta jarrerak -positiboak batzuk, negatiboak gehienak- sortzeko oso egokiak izaten dira. Horrelako egoeretan, eskari duinak erantzuteko justiziak espazio eskasa izaten du. Duintasunaren ordez *arrazoizko egokitzeak* behar dira¹⁷.

15 Euskararekin balio digu Zygmunt Baumanek egungo gizartea ezaugarritzeko asmatu duen kategoria: 'modernotasun likidoa'. Komunitateak 'jokaera solidoak' eskatuko lituzkeen moduan, hirian aukera gehiago dago eta portaera likidoaren aukera zabaltzen da: "Tarteka euskaraz hitz egin nezake, baina euskaratik ezkutatu egin naiteke ere".

16 Oso ohikoa den egora mingarri bat tabernari bati euskaraz egitean gertatzen da, praktika inkriminatorioak normalean pobreei zuzentzen zaizkielako. Noski eskaria egiten duenak ere bere burua desleku etengabean ikusten du.

17 Gérard Bouchard eta Charles Taylor, *Etorkizuna eraikitzea. Adiskidetzeko garaia*, Ikuspegi, Bilbo, 2010. Québec-en garatu zen Bouchard/Taylor txosten eredugarrian adibide ugari ditugu.

3.8. Errezeloa eta interes eza! euskara gizarte sektoreka

Euskara ez da soilik hizkuntza bat, euskal gizarteko hizkuntza da eta gizarte horretan euskararekin sektore ezberdinak interes ezberdinekin erlazionatuko dira. Beraz, hirian ugari, ikusgarri eta kontzentratuta aurki litezke euskara behar ez duten, nahi ez duten edota euskaratik urrun dauden taldeak. Hiriak euskarari erresistentzia/lankidetzeta era anitzetan erakutsi liezaioke, batzuetan zuzena, askotan kontzientea eta gehienetan inkontzientea. Hirian hobeto antzeman daitezke euskararen aldeko eta kontrako sektore sozialak eta baita inolako interesik ez dutenak. Soziologikoki ez dira gizarte taldeak, agregatu estatistikoak baino, baina sarri taldeak bailiran jokatu edo des-ekiten dute¹⁸. Honako sektore-klase/hizkuntz portaera eta posizioak ikus litezke, (Grafikoa ikusi), eta talde estatistiko hauen praktika kulturaletan klase posizioak erantsiak datoz, boteredunak eta boteregabeak:

- Euskaratik aparte bizi den talde boteretsua. Euskarari dagokionean errealitate paralelo batean bizi dira eta bizi daitezke. Sektore honen baitan badago abertzale bozkatzeko duen sektore bat euskararen hautua egiten ez duena.
- Klase ikasi itxaropentsu eta estrategiko erdalduna. Badago beste sektore bat, profesional eta lizentziadunena, euren seme-alabentzako euskara ereduak aukeratu dituen, eta aurrekoaren besteko kapitalak ez baditu ere, ez dira askoz txikiagoak, behintzat kapital kulturalari dagokionean. Sektore honek goranzko mugikortasuna bizi du. Denboraren poderioz eta estatus sendo bat mantentzen badute klase ertain altua bilakatuko dira etorkizunean. “Sasi-aristokrazia kultural” gisa jokatu dezakete, ez agian eurak, baina bai euren seme-alabak. Bidaiak indartsu bat bilatu ahal du euskarak sektore honetan, baina bidea luzea eta geldoa da, seme-alabengana transferitzen dena. Seme-alabak hiztun osoak bilakatu daitezke, gurasoenganako kanpaina neurtu eta ondo zuzenduak helarazten asmatu behar da.
- Tipologia sozial berberetako beste gizatalde txiki bat dago, zati bat euskalduna, eta arrazoi politikoak direna medio, etsaigo intelektual bat osatzen duena edo eta arrazoi instrumental eta bitartekoenetan oinarrituta, euskararen beharra, euskararen ezarrera eztabaidatu eta ukatzen duenak. Ez da kopuruz handia, baina bai esanguratsua.
- Gero, euskaldungoa legoke: klase altu, ertain eta behekoaz osatua dago. Altukoa zati txiki bat, ertaina oso ugaria eta behekoa eskasa. Gizarte egitura oso ondo kokatua dago, maila intelektual handikoa da, ekonomikoki sendoa, eta ezaugarri hauek gora egiten dute euskararen ehuneko altuenak dituen Gipuzkoako eskual-

18 Batez ere, hierarkia sozialaren azken tokian daude, etorkinak direlako eta baita klase behekoena edo sektore pobreena direlako.

deetan. Oro har, egituraren aldetik euskaldunek ez dute arazo handirik eta prinzipioz euskara harrotzeko nahiko gizarte baliabide. Sektore honetan estrategikoa da hezkuntzan eta administrazioaren maila guztietan ari den azpisektore ugaria. Hauen eta zenbait sortzailereren esku dago euskara eta bere gaitegia berritu eta gaurkotzea. Jarrera eta baloreei dagokienean oso modernoa da sektore hau¹⁹.

- Badago beste sektore bat, izen hobegoen baten faltan, *mesokrazia* izendaturikoa, kapitalen ikuspegitik egoera zehaztezin bat duenak, baina era berean egunerokotasunean euskararekin kontakturik edo harremanik ez duena eta talde amorfo baina kopuruz zabala izan litekeena. Ez dago kontra, baina ez du harremanik eta bere eguneroko parametro likidoetan ez da hurbiltzen eta beste errealitate paralelo batean bizi da, Bilbon batik bat.
- Ondoren, behe klase gehiena, hezkuntzaren bidez euskarara ailegatu dena. Azpi-sektore honek ez du gizarte boteretik eta ez dira erreferentzialak, baina kopuruaren ikuspegitik euskararentzako ezinbestekoak dira, hiztun hazkundera besteak beste hortik etorri eta etorriko da eta. Euskara behar dute ezinbestez, berari esker goranzko mugikortasuna bermatu dezakete eta. Eta euskarak behar ditu ezinbestez eta euskararen konfiantza izan dezaten konbentzitu behar ditugu.

19 Inolako jarrera kritizistatik gabe oso interesgarria da sektore honen kapazitate praktikoari buruz Mikel Zalbidetik dioena: "Aurrera egin delarik ere goian esandako egitasmo zabalean, xede nagusi edo bakarra ahuldutako hizkuntza(k) indarberritzeko bideak aztertzea duen instantziarik ez dago gure artean. Funtsezko galdera batzuei ganoraz erantzun ahal izateko, "hurrengo asterako" presaren itolarria gabe lan egin ahal izango duen *Clearing house* moduko bat eratzea komeni da. Etxe horren falta-gabeziak sortu izan duen eta orain ere sortzen duen desoreka nabarmena da. Ez dago konparaziorik, hizkuntza indarberritzeko gizajende aldetik, antolamenduz, dirubidez eta dedikazioz egiten dugun inbertsio ohargarriaren eta langintza horri buruzko gogoeta-lan teorikoan eralgitzen ditugun baliabideen artean. Kontuan izan, sektore publikoa eta pribatua batera hartuz 40.000 soldatetik gora ordaintzen direla hilerok, EAEn bakarrik, euskalgintzaren esparru zabalean. Gehienak Lehen eta Bigarren Hezkuntzan, bai, baina ez hor bakarrik: unibertsitate publikoak eta pribatuak, helduen alfabetatze-euskalduntzea, irrati-telebistak, liburugintza, ikus-entzunezko materialgintza, kirol-alorreko eta astialdiko euskal ekimenak, literatura zentzurik zabalenean, itzulpen-etxeak,.. Bere muga eta gorabehera guztiekin ere, baliabide material, ekonomiko, antolamenduzko eta gizajendetzako ugari aplikatu da mende-laurden luzean, euskara indarberritzeko saioetan. Ez dugu uste *per capita* terminotan gu baino askoz aurrerago dabilenik Europan hiztun-herri minoritario asko. Gizajendetz, antolamenduz, dirubidez eta dedikazioz egiten dugun inbertsio ohargarri horren pareko ekimenik ez dugu, tamalez, gogoeta-lan egituratuaren sailean. Euskalgintzak EAEn bertan duen kostuaren (40.000 soldaten) milatik bat gogoeta-lanean xahutzea ez litzateke helburu makala". In Zalbide, Mikel, "Mintza-jardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 100, 2016 (3), Andoain, Gipuzkoa, orrialdeak 140-1.

- Atzerri-immigrazioa dator azkenik. Immigrazioaren kopururik handiena hirietan dago eta normalean bi erronka daude biztanleria honekiko: 1) Batez ere, A eredura joaten egon izan dira eta gehienetan inolako hezkuntza berrikuntzarik ez duten zentroetara, beraz hemen badago zeregina instituzioetatik eta gobernutik, eta 2) immigrazioak euskararen arazo batzuk indartzen ditu, baina ez du berririk sortzen. Programa integrala eskatzen du immigrazioa eta euskararen arteko harremanak, mugimendu batean bi helburu betetzeko: gizarte-inklusioa bermatu eta hizkuntzarena ere. Harreraren prozesua bukatuta eta hizkuntz aniztasunean hierarkia logikoak ezarrita, bada edo heldu da interbentzio integral honi aurre egiteko unea: harrera sendo bat, eskoletako konzentrazio eta segregazioak ezabatu eta lan mundua koipetu, integrazio bidean aurrera egin gura bada.

Hurrengo taulan, sektore bakoitzak euskararekin duen harremana zehazten dugu, dituen botere/kapitalak jokoan ipiniz. Egia esan ez dugu ikerketa zehatzik egin honen inguruan baina intuizio informatu batetik egiten dugu ezaugarrikuntza. Beste gai batzuetarako balio izan badu (identitatea, ideologia, estatu forma, eta antzekoetarako), euskararako ere abiapuntu gisa balio digu.

3. Taula.

Euskararekiko hurbilpena sektore/klase eta kapital ezberdinen arabera


Sektoreak	Kapitalak			Euskarara hurbildu
	Ekonomikoa	Kulturala	Soziala	
Goi klasea	Handia	Handia	Oso handia	Oso gutxi /Ia ezer
Hiri klase ikasia	Dezentea	Handia	Handia	Erdizka
Etsaigo intelektuala	Dezentea	Handia	Handia	Erdizka
Euskaldungoa	Dezentea	Handia	Handia	Erabat
Mesokrazia	Zehaztezina	Erdipurdikoa	Erdipurdikoa	Ez
Behe klasea	Eskasa	Eskasa	Eskasa	Ia erabat
Immigrazioa	Oso eskasa	Oso eskasa	Eskasa	Gutxi

Iturria: Egileak egina

Grafikoki honela geratzen dira klase sozialen euskararekiko posizio sozialak:

6.Grafikoa.

Euskararen gizarte/klase geografia



Iturria: Egileak egina

Deskribapen horren ondorioz, sektoreka, euskara eta bere eskaintza zatitu beharra dago, eskaintza bereiziak eginik, eta horrek inbertsio ekonomiko handia, ikerkuntza sakonak eta publizitate kanpaina zuzenduak eskatzen ditu. Eredu bakarrak ez du zentzurik.

4. AMAITZEKO: BIDE GURUTZE ALA ERROTONDA?

Euskara, ondorioz, euskara, klase sozialak eta posizio etnopolitikoak elkar topatzen duteneko bidegurutze konplexuan kokatuta dago ere. Umorez esaten zuten Nerea Azurmendi kazetariak ez zekiela edo *bidegurutze* edo *errotonda* batean geunden euskararekin. Ezberdintasun ideologikoa eskasa da Euskadin eta handia ordea nazionalismoaren eskalakoan. Beraz, euskarak beti erregai ideologikoa izaten jarraituko du.

Diskurtsiboki eta historikoki ulerkeran etnikoan badago hutsune oso nabarmen bat: *euskaltasuna*²⁰. Sortu barik dago eta, txarrena, ezin da sortu. Sabino Aranarengandik hasita logika etnikoa bakarrik formalki aldatu da, ez errealitate materialean. Agian, maila pertsonalean posible da, baina kolektiboki ez da egon izan emankor edo erabakior izan litekeen

20 Jarrera modura oso ahula da eta soziopolitikoki eraiki ezin den posizio soziala da.

errebisiorik²¹. Horrela, hemen *abertzaleak* eta *espainolistak* daude²². Euskaltasunak, euskaltzaletasunak, euskara suspertzen lagun dezake, baina dagoen jauzi etnikoarekin euskara batik bat abertzaleena baino ez dela kontsideratzen jarraituko da. Abertzale sutsuek inplizituki hala uste dute eta aurkari indartsuek euskaratik urruntzeko egoera hau baliatu egiten dute, euskara beraiek baztertzeko bakarrik sinbolo modura erabiltzen dela esanez. Gainera abertzale askoren kontraesana -euskara idealki maitatu, baina ez ikasi, ez eta gutxiago erabili, modu erritualean ezpada- oso ondo datorkie izaera sinbolikoa sinesgarri izan dakien.

Sektore aurkariak erakartzeko logika etniko hau apurtu eta ordezeko bat asmatu behar da, bestela ezagutzaren hazkundearen sabaia nabarmenagoa izango da, eta honelako egoeretan justiziaren printzipioak ez du inolako eraginik eta ikuspegi errealista batetik txikiak eman behar du amore beti. Zoritzarrez, abertzale izateko ez da euskara jakin behar, eta bozka abertzalea ematen dutenek euskara ikasi izan balute askoz egoera osasuntsuagoan egotea ekarriko luke²³. Erabakigarriena ez da euskara, bozka ondo edo egoki ematea baino. Herri bakoitzak bere historia propioa du eta Bourdieuk behin eta berriz esango duena aplika liteke hemen: ezerezetik zaila zerbait ateratzea. Honetan ere euskarak anbivalentzian jokatu behar du. Funanbulismo jokoetan arituz.

Euskararen erronka batzuk, beraz,

- 1) Hiriak eta modernitateak euskara bera ere kolonizatu du. *Hiritar* hitzak *herritar* hitza ordezkatu behar du lehenbailehen, dugun gizartea ulertu nahi bada.
- 2) Honek guztiak eta hiriarekiko kontaktuak kalitate eskasagoko euskara dakar, behintzat Gipuzkoa ez den gainontzeko lurraldean²⁴. Hizkuntza kalitatea sakrifikatu behar da ezinbestean, hizkuntza kontuetan ez dago prozesu soziologikoen gainera litekeen helburu linguistikorik.

21 Esaterako gezurra da hemen bizi eta lan egiten duen oro euskaldun dela. Teorikoki, formulazio berriak egin dira; praktikoki eta materialki, Sabindarrak gara.

22 Banaketa hau oso presente egoten da abertzaleen planteamendu bitarretan, egunerokotasunean eta teorikoki.

23 Eta eguneroko praktika sozialean (soziologikoetan) abertzalea izatea euskaldun izatea da. Termino honen inguruan joko logiko ugari egin genitzake (euskaradunak, baskoak, ...), baina euskaldun euskaradun ez-abertzalea ez-euskalduntzat edo espainol(azo)tzat irainduta, joko linguistikoez ez digute ezterako balio. Logika linguistikoa eta soziopolitikoa ez dira gauza bera, eta politikan posible ez dena ez da posible hiztegiaren. Ez du merezi lerro gehiago idaztea kontu honen inguruan, eta gutxiago identitate, gain-identitate, identitate metatuen inguruko nahasketa ulertezinak, sarri gure artean egiten den moduan. Irakurri David Anaut, *Txokotik zabalera*, Alberdania, Irun, 2006, 15-24 orrialdeak.

24 David Anaut, *Txokotik ...*, 79-88 orrialdeak.

- 3) Hipotesi honetatik abiatuta eta gerta litekeena aurreikusita, bide berritzaileak aztertzen joatea ezinbestekoa da eta epe ertain eta luzean kalitatea eta hedadura uztargarri izan daitezen tresnak sortu behar dira.

Bestalde, hiriak, modernotasunak, azken mendeko historia eta errealtate materialak euskararen estatusa kaltetu egin dute eta bere des-komunitarizazio prozesua azkartu. Adin eta belaunaldi kontuek adierazten digute euskara modu mekanikoan erabiltzen dutenak desagertzen doazela eta horien ordeztan datozen askok euskara ikasia dakarte eta modu erreflexiboan praktikatzen dute. Soziologian elkargotik (*gemeinschaft*) gizartera (*gesellschaft*) doan jauzia da, komunitatetik gizaki bakunera, afektutik kalkulura. Automatismoen ordeztan kalkulua, eta nahitaez, honekin batera ekonomia kognitiboa, erabiliko da momentu bakoitzean errazena egiten den hizkuntza erabiltzeko. Gehienetan, oraindik ere eta tarte luzean, ezinbestez gaztelera²⁵. Kalkulua ez da maltzurkeriz egiten, baldintza soziologikoen eraginez baino.

Hizkuntza bati gerta lekiokoen egoerarik hoberena bere hiztunek hizkuntza hori zergatik erabiltzen duten jakitun ez izatea da, beraiena delako, izan delako eta besterik eskura ez dutelako. Gizarte eraikuntza guztiak naturalizazioari esker indartu eta egonkortu dira. Egoera horietako hiztunek dakitena praktikatzen dute. Dakitena egin. Egoera ideala da hori, baina egun eta etorkizunean euskarari gertatuko ez zaiona.

Hiztun honen ordeztan beste hizkuntza bat euskara bezain ondo edo hobeto dakiena dator eta honek hainbat buruhauste sortuko du, eta bizi ere. Zertarako ekin gutxitua den hizkuntzan, ezelako ahaleginik gabe, eta errazago, beste bat badu? Osagai edo ikusmolde normatiboetatik aparte egoera honek hausnartua izan behar du, arazo erradikalek neurri sakonak behar dituzte eta²⁶. Galdera honi erantzun ezean, azalpen gisa borondate edo justizia kontuetara joko dugu, eta horietan ez dago soluziorik. Ondorioz, hiria komunitate bilakatu behar dugu euskararako, jakinda ere kontrakoa erraz gerta litekeela: landa gune guztia gazteleraz hiritartzea.

Irabazi-galerak ondo neurtu. Hiri mundu eta mundu hiri joko honetan, hiriak gureganatu ez arren, oso inportantea da udalerrri eta eskualde erabakigarriak ez kaltetu edo

25 Andu Lertxundik Kike Amonarrizzen *Tribuaren berbak* telebista-programan oso adierazpen interesgarriak egin zituen. Euskararen adierazkortasunean maizago entzuten dugun gaztelera eragiten duela esaten zuen. Anduren ustez gaztea eta piperraren bila gaztelaniara joaten gara, eta arazoa belarrarian edo entzuten denean datza. “Gure belarriek euskaraz baino gaztelera askoz gehiago jasotzen dute egunean zehar eta horren ondorioz esaldi erdalduak ateratzen zaizkigu gure hizketetan”. Bere ustez, EITBk hizkuntza premietan pentsatu behar du eta Eskolak ahozkotatasunaren aldeko iraultza egin beharko luke. Bere tesia honako hau zen: “finkatzen badugu ahozkotatasuna, finkatu dugu hiztuna”, EITB, *Tribuaren Berbak*, 2015eko maiatzaren 5eko emisioan.

26 Ibon Sarasolak oso argi hitz egiten du kontu hauetan bere *Bitakoran Kaioera* liburuan, ikus 30-43 orrialdeak.

galtzea. Baten ametsean ezin da bestea ahuldu. Euskararen bermea Gipuzkoako tamaina erdiko udalerrietan eta Donostian dago momentuz. Bitartean eskola sistemak euskaradunak egiten jarraitu behar du eta horren guztiaren ondorioz euskararen aldeko dekantazio prozesu berriak sortuko dira.

Euskarak hiria irabazteko anbibalentzia ugariko prozesuetan aritu beharko du eta gorabehera askorekin sortzen ari zaio berreskurapenaren prozesua gidatu dezakeen subjektu sozial indartsu bat. Beraz, pazientzia, lasaitasuna, diskurtso berriak, helburu egingarriak seinalatu beharko dira, egungo eskualde erabakigarriak mantenduz eta hiriak sendotuz. Non dago berreskurapen honen sabaia? Zaila da esatea, baina, sekula lortu ez arren, berreskurapenak izan behar du helburua. *Working in progress* honetan, urratsak etengabe errebisatu beharra dago baina badirudi bide egokia hartu dela, abiadura ere ez da txarra, eta txango honek merezi du, nahiz eta une luzeetan giraka errotonda batean sartuta egon. Aurkitu eta agertuko dira!

Beraz, euskarak hirietan arazo ezberdinak ditu: 1) Orokorrak, bere garapen a-normalari atxikituak, eta horiek modu ezberdinean garatu arren, berdinak dira landagune eta hirietan, hirietakoan zailagoak noski; 2) Hiriko espezifikoak, hiriak ez dio euskarari gaur egun behintzat laguntzen eta 3) Kontaktutik eratortzen direnak, eta horrek lotura handia du gure gizarteko sektore soziopolitiko eta kulturalekin, tartean identitate hautuak daudelarik.

Oraingoan bai, eta amaitzeko, hirietan *Your/Our Sormena* eskatzen diguten garai honetan ondo legoke instituzioetatik behintzat bisitari eta turistek non dauden jakin dezaten neurri instituzionalak abiatzea, hiria erakusleihoan jarri gura bada, egin dadila modurik integralenean, euskara barne delarik.

Milan Kunderak kontatzen du Parisen hitzaldi bat eskaintzen hasita esan zuela “datorren mendean txekierak jarraitzen badu...” eta entzuleek ez zioten ezer ulertu ez baitzuten sekula pentsatu ere egin frantsesa inoiz desagertu zitekeenik. Euskaraldiaren balorazioa egiteko momentuan Mikel Irizarren iritzi bat dakart²⁷. Oro har gozoa izan den kanpaina batean, osakin gazia ere aurkitu du eta honela dio: “Gazia zen ikustea partaide gutxik eskatu zutela formazioa, ganorazko saio bana egitera iritsi ginen, soilik; biak ona, hori bai. Irudipena daukat jende asko ez dela kontziente izan oraingoa ez zela euskararen alde egotea, baizik euskaraz egitea; eta horrek jarrera lantzea eskatzen ziola”. Milan Kundera eta Mikel Irizarren muturren artean funanbulista lanetan era anbibalentean ibili beharra. Hori da garai berri honek eskatzen duena.

27 Mikel Irizar, “Euskaraldiaren ernaldiaz eta gauzapenaz”, *Galde aldizkaria*, Donostia, 2019, 35-37 orrialdeak.

5. BIBLIOGRAFIA

- Aierdi Urraza, Xabier, "Hizkuntza praktikak hiri mundo eta mundo hirietan: anbibalentiaren presentzia", *Euskera*, 2014, 59, 2. 503-544. Bilbo.
- Aierdi Urraza, Xabier, "Mintzajardunaren azken urteotako bilakaera. Mikel Zalbideren testuaren inguruko hausnarketa marginalak", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 100, 2016 (3), 209-229, Andoain (Gipuzkoa)
- Anaut, David, "Proposamen harrigarriak ezean, proposamen egingarriak eta eragingarriak gutxienez", *Galde Aldizkaria*, 24. Zbkia, 2019, Donostia, 41-43 orrialdeak.
- Anaut, David, *Txokotik Zabalerara*, Alberdania, Irun, 2006.
- Appadurai, Arjun, *El rechazo de las minorías. Ensayo sobre la geografía de la furia*, Tusquets, Bartzelona, 2007.
- Bauman, Zygmunt, *Modernidad líquida*, FCE, Mexiko, 2003.
- Bouchard, Gérard eta Taylor, Charles, *Etorkizuna eraikitzea. Adiskidetzeko garaia*, Ikuspegi, Bilbo, 2010.
- Bourdieu, Pierre, *¿Qué significa hablar? Economía de los intercambios lingüísticos*, Akal, Madril, 1985
- Connor, Walker, «Democracia, etnocracia y el Estado Multinacional moderno: paradojas y tensiones», in A. Pérez-Agote (arg.), *Sociología del Nacionalismo*, Vitoria-Gasteiz, 1989, 111-130.
- Delgado, Manuel, *Sociedades movedizas. Pasos hacia una antropología de las calles*, Anagrama, Bartzelona, 2007.
- Elzo, Javier eta Silvestre, María (Zuz.), *Un individualismo placentero y protegido. Cuarta encuesta europea de valores en su aplicación a España*, Deustuko Unibertsitatea, 2010.
- Euskararen Aholku Batzordea, XXI. Mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak. *Euskara, XXI. mendeko hizkuntza bizia, egunerokoa eta noranahikoa*, Oinarrizko Txostena, HPS, Kultura Saila, Eusko Jaurlaritz, 2008, Gasteiz.
- Irizar, Mikel, "Euskaraldiaren ernaldiaz eta gauzapez", *Galde Aldizkaria*, 24. Zbkia, 2019, Donostia, 35-37 orrialdeak.
- Martínez de Luna, Iñaki, "Las políticas lingüísticas han puesto el acento en el aprendizaje, lo cual es correcto pero insuficiente", Iñaki Irabalbeitiak elkarrizketatua, *Galde Aldizkaria*, 24. Zbkia, 2019, Donostia, 35-37 orrialdeak 22-25.
- Música, Matías, «Lengua y secesión. Política lingüística y el futuro del País Vasco», in ZZ.EE., *La secesión de España. Bases para un debate desde el País Vasco*, Tecnos, Madril, 2014, 199-233 orr.
- Osa, Erramun eta Aierdi, X., «Immigrazio berria, hizkuntza arazo berririk?», *Euskera*, 54 libkia., 3. zenbakia, Bilbo, 2009, 1433-1452 orrialdeak.

Sarasola, Ibon, *Bitakora Kaiera*, Erein, Donostia, 2016

Sarasua Jon, *Hiztunpolisa. Euskaltasunaren norabideaz apunteak*, Pamiela, Iruinea, 2013.

Zalbide, Mikel, "Mintzajardunaren egoera eta azken urteotako bilakaera. Aurrera begirako erronkak", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 100, 2016 (3), Andoain, Gipuzkoa, orrialdeak 11-190.

4. Taula. Hiriburuak eta EAEko 40 udalerri handienak eta euskara ezagutza.

	Biztanleria	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak	Biztanleria	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
Bilbao	335.732	97.287	67.004	171.441	100	29,0	20,0	51,1
Gasteiz	235.839	64.347	46.364	125.128	100	27,3	19,7	53,1
Donostia	176.637	81.274	34.825	60.538	100	46,0	19,7	34,3
Barakaldo	96.235	24.307	20.174	51.754	100	25,3	21,0	53,8
Getxo	75.862	25.246	17.499	33.117	100	33,3	23,1	43,7
Irun	58.315	23.683	11.496	23.136	100	40,6	19,7	39,7
Portugalete	45.430	11.815	9.214	24.401	100	26,0	20,3	53,7
Santurtzi	44.539	11.660	9.537	23.342	100	26,2	21,4	52,4
Basauri	40.070	11.298	7.827	20.945	100	28,2	19,5	52,3
Errenteria	38.949	16.714	7.749	14.486	100	42,9	19,9	37,2
Leioa	30.218	10.790	6.901	12.527	100	35,7	22,8	41,5
Durango	28.710	15.191	5.657	7.862	100	52,9	19,7	27,4
Galdakao	28.591	12.335	5.856	10.400	100	43,1	20,5	36,4
Sestao	26.608	6.471	5.367	14.770	100	24,3	20,2	55,5
Eibar	26.460	14.386	4.665	7.409	100	54,4	17,6	28,0
Erandio	23.205	7.202	4.776	11.227	100	31,0	20,6	48,4
Zarautz	22.501	16.683	2.468	3.350	100	74,1	11,0	14,9
Arrasate	21.413	12.227	3.360	5.826	100	57,1	15,7	27,2

	Biztanleria	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak	Biztanleria	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
Hernani	19.766	12.118	3.142	4.506	100	61,3	15,9	22,8
Tolosa	18.707	13.271	2.037	3.399	100	70,9	10,9	18,2
Amorebieta-Etxano	18.092	10.160	3.183	4.749	100	56,2	17,6	26,2
Lasarte-Oria	18.047	8.188	3.290	6.569	100	45,4	18,2	36,4
Laudio/Llodio	17.882	5.975	3.539	8.368	100	33,4	19,8	46,8
Hondarribia	16.777	10.689	2.675	3.413	100	63,7	15,9	20,3
Mungia	16.679	9.350	3.033	4.296	100	56,1	18,2	25,8
Bermeo	16.324	11.972	1.730	2.622	100	73,3	10,6	16,1
Pasaia	16.235	7.008	3.298	5.929	100	43,2	20,3	36,5
Gernika-Lumo	16.167	11.300	1.875	2.992	100	69,9	11,6	18,5
Ermua	15.543	5.214	3.328	7.001	100	33,5	21,4	45,0
Bergara	14.536	10.015	1.893	2.628	100	68,9	13,0	18,1
Andoain	14.466	8.148	2.558	3.760	100	56,3	17,7	26,0
Azpeitia	14.407	12.057	976	1.374	100	83,7	6,8	9,5
Beasain	13.396	7.910	2.176	3.310	100	59,0	16,2	24,7
Sopelana	12.318	5.769	2.971	3.578	100	46,8	24,1	29,0
Arrigorriaga	11.749	4.520	2.485	4.744	100	38,5	21,2	40,4
Trapagaran	11.661	3.452	2.332	5.877	100	29,6	20,0	50,4
Azkoitia	11.478	8.828	1.057	1.593	100	76,9	9,2	13,9

	Biztanleria	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak	Biztanleria	Euskaldunak	Ia-euskaldunak	Erdaldunak
Elgoibar	11.132	6.932	1.693	2.507	100	62,3	15,2	22,5
Oñati	10.964	8.542	934	1.488	100	77,9	8,5	13,6
Etxebarri	10.647	3.764	2.426	4.457	100	35,4	22,8	41,9
Amurrio	10.008	3.372	1.967	4.669	100	33,7	19,7	46,7
Oiartzun	9.992	7.619	1.117	1.256	100	76,3	11,2	12,6
Zumaia	9.541	7.042	1.008	1.491	100	73,8	10,6	15,6
Zumarraga	9.526	4.864	1.592	3.070	100	51,1	16,7	32,2
Abanto Zierbena	9.361	2.851	2.044	4.466	100	30,5	21,8	47,7
Ordizia	9.280	5.638	1.368	2.274	100	60,8	14,7	24,5
Ondarroa	8.432	6.620	765	1.047	100	78,5	9,1	12,4
Legazpi	8.196	4.981	1.208	2.007	100	60,8	14,7	24,5
Ortuella	8.191	2.304	1.788	4.099	100	28,1	21,8	50,0
Zalla	8.140	2.506	1.615	4.019	100	30,8	19,8	49,4
Balmaseda	7.472	2.075	1.469	3.928	100	27,8	19,7	52,6
Abadiño	7.314	4.093	1.296	1.925	100	56,0	17,7	26,3
Muskiz	7.249	2.204	1.614	3.431	100	30,4	22,3	47,3

Iturria: Eustat eta HPS. Egileak egina.